

EAJ-PNV ETA PSE-EE-REN ARTEKO AKORDIO PROGRAMATIKOA, DURANGON GOBERNU BAT OSATZEKO

1. SARRERA

2023ko maiatzaren 28ko udal eta foru hauteskondeek erakutsi dute Durangok, Bizkaiko gainerako lurralde historikoetan gertatzen den bezala, gizarte anitza duela, eta aurkezten zaizkigun egungo erronkek akordio zabalak behar dituztela, egonkortasun politiko handiagoa bermatzeko eta arrakastaz aurre egiteko.

Ikuspegi desberdinetatik, bi alderdiak gai izan gara izendatzaile komun bat aurkitzeko modu koordinatuan lan egiteko eta gizarte durangarrak gaur egun dituen erronkei aurre egiteko, hala nola zerbitzu publikoen babesari, desberdintasunen aurkako borrokari, aurrerabidearen eta justizia sozialaren bultzadari, suspertze ekonomikoari, bai eta klimaren, demografiaren eta ekonomia produktibo berrira egokitzearen erronkei erantzuteko ere.

2023-2027 agintaldirako Durangoko Udalerako gobernu-akordioak lankidetzara, adostasuna eta elkarriketa biltzen ditu. Durango aukera-herria izatea nahi dugu, guztiontzako onurak ekarriko dituen. Bizitzeko, lan egiteko, gozatzeko eta gure bizi-proiektuak garatzeko lekua. Herritarrentzako hiria nahi dugu eta haientzat aurkezten dugu bi alderdiek adostea lortu dugun akordio hau, tresna baliagarri gisa.

EAJ-PNV eta PSE-EE bat gatzak akordio honetan garatzen dugun Koalizio Gobernuaren lehenitasunak jarraian aipatzen diren proiektuak jaso behar dituztela. Proiektu horiek agintaldiaren lehen 100 egunetan idatziko den Gobernu Plan baten sartuko ditugu, eta lankidetzara eta adostasun-ikuspegitik gauzatuko dira. Talde sinatzaileek aldeztu aurretik landu eta negoziatuko ditugu proiektu estrategiko handiak.

Bi alderdien konpromiso politikoak barne hartzen du Durango, auzoak eta durangarren bizi-kalitatea indartzeko kudeaketa bat egitea. Horretarako, elkarrekin lan egingo dugu pertsona guztientzako (adinekoentzako, haurrentzako, emakumeentzako...) Durango bat lortzeko, kalitatezko ekonomiaren eta enpleguaren eragile izango dena, hiri iraunkor eta osasungarria, auzo guztietan lurralde- eta gizarte-kohesioa izango duena, urteko 365 egunetan kultura izango duena; Durango gaztea, euskalduna eta segurua; giza garapen iraunkorrerako hiria, irisgarritasunaren eta mugikortasun iraunkorraren erreferente izango dena eta etxebizitza eskuratzea erraztuko duena; Durango erakargarria, parte-hartzailea, digitala eta kalitatezko zerbitzuak izango dituen.

2. ILDO ESTRATEGIKOAK

Hurrengo agintaldian Gobernuaren jarduna arautuko duten ildo estrategikoak eta bi alderdiek adostutako lehentasunezko proiektuak eta ekintzak honako hauek izango dira:

2.1. Ekonomia, enplegu-sorrera eta gizarte-kohesioa sustatzea

Kalitatezko enplegua sortu, sendotu eta garatzeko laguntzak gure Udalaren ildo estrategiko eta lehentasunezkoetako bat izan behar du. Era berean, bereziki azpimarratuko dugu enplegu-aukerak kolektibo ahulenetara gehiago iristea lortzeko ahalegina. Eta hori guztia, udalerriko eragile ekonomiko eta sozialekiko parte-hartzearekin eta lankidetzarekin. Horretarako, honako ekimen hauek gauzatuko dira:

- Durangoko Udala DEK-Durungaldea Enpresa Ekimenari atxikitzea, eskualdeko gainerako eragileekin batera gure enpresa-sarearen lehiakortasuna, ekintzailatza eta kalitatezko enpleguaren sorrera bultzatzeko.
- Eguzkitzaren industria-jardueraren garapena
- Durangaldeko Ekogarapen Gunearen eraikuntza erraztea, horretarako Eusko Jaurlaritzarekin, BFArekin eta DEKekin lankidetzan arituz.
- Landako Gunea bultzatzea, Euskadiko Biltzar eta Azoken sarean sartzeko beharrezkoak diren baliabide eta zerbitzuez hornituz.
- Enplegu-azoka bat sortzea Durangon.
- Enplegu-planak eta beste esperientzia-programa batzuk garatzea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin eta beste eragile batzuekin lankidetzan, lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen laneratzea errazteko: emakumeak, 35 urtetik beherakoak, iraupen luzeko langabeak, 45 urtetik gorakoak eta bazterketa-arriskuan daudenak.
- Tokiko merkataritzari laguntzea, berariazko programen bidez, eta merkaturako plaza birgaitzea eta dinamizatzea.
- Oinarrizko tokiko autoenplegu eta ekintzailatzako ekimen guztiei laguntza integrala eskaintzea.
- Enpresa-transmisioko programak bultzatzea, enpresen eta enpleguen jarraipena sustatuz, enpresa-transmisioko prozesuak identifikatuz eta lagunduz.

2.2. Zerbitzu publikoak kalitate- eta unibertsaltasun-parametroetan defendatzea eta mantentzea

Akordio honen ondorioz sortutako udal-gobernuaren lehentasuna da gure udalerrian bizi direnek udal-eskumeneko ondasun eta zerbitzu publikoetarako sarbidea izatea bermatzea, kalitate- eta unibertsaltasun-parametroetan, bizi garen ongizate-gizartearen estandarren arabera.

Zerbitzu horiek udalaren eskumenekoak ez diren kasuetan, udal-gobernuak bere gain hartzen du zerbitzu horiek herritar guztiengana iristeko beharrezkoak diren baldintzak sustatzeko erantzukizuna, bai eta Durangoko herritarren interesak defendatzekoa ere, beste edozein administrazioen aurrean, zerbitzu horiek behar besteko kalitatea izan dezaten.

Berariaz landuko dira honako ildo hauek:

- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan aritzea Durangoko osasun-zerbitzuak hobetzeko eta zabaltzeko, lehen mailako arretan atentzio berezia jarritz eta Durangon anbulantzia medikalizatua ezartzeari buruzko eskaerak barne hartuz eta Bereizmen Handiko Osasun Zentro bat eraikitzea erraztuz, dagokion plan funtzionalean elkarrekin lan eginez.
- Adineko pertsonentzako zerbitzua hobetzea, bai eta kolektibo garrantzitsu horrentzako guneak ere.
- Durango Kirolak zerbitzua indartzea eta hobetzea.

2.3. Gizarte-politikak: Pertsonak erdigunean

- Gizarte Zerbitzuen Legearen Zorroari buruzko Dekretuak ezartzen dituen zerbitzu guztiak izatea.
- Nahi ez den bakardadea prebenitzeko eta horren aurka borrokatzeko udal-estrategia garatzea.
- Adinekoen parte-hartze soziala eta aisialdi aktiboa sustatzea.
- Andraguneko zerbitzuak indartzea, emakumeak ahalduz, haien erreferentzialtasuna berreskuratzeko.
- Banakako arreta-zerbitzu goiztiarra eskaintzea, bazterketa-arriskuko egoerak detektatzeko, eta egoera zehatz bakoitzari aplikatu dakizkiokeen irtenbideak definitzea, gizarteratzea sustatzeko.
- Haur, nerabe eta gazteentzako ekipamendu-sarea hobetzea.

- Memoria osoa berreskuratzen eta zabaltzen dela bermatzea.
- Udal-ekintza guztia Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuen eta 2030 Agendaren printzipioen arabera egituratzea.
- Mota guztietako kultura- eta arte-jardueretan parte hartzeko neurri pizgarriak ezartzea.
- Durangoko kultur eskaintza dibertsifikatzen jarraitzea, bereziki antzerkian, zineman, musikan, pinturan, eskulturan, dantzan, argazkigintzan, komikian,
- Kultura-aniztasunaren elementuak sustatzea.

2.4. Hiri bizigarriagoa eta iraunkorragoa

Bi alderdiek beharrezkotzat jotzen dute hirigintza-politika herritarren zerbitzura jartzea eta izaera soziala ematea, udal-gobernuaren arreta-gunea biztanleen ongizatea eta duintasuna izan dadin, interes orokorra lehenetsiz partikularren eta gutxiengoaren aurretik.

Zentzu horretan, etxebizitza duina eskuratzea herritarren oinarritzko eskubideetako bat da, baina asko kostatzen ari da bermatzea, babes publikoko etxebizitzarik ez dagoelako.

Horrela, ekintza hauek garatuko dira:

- Etxebizitza hutsen mobilizazioa aktibatzeke mekanismoak martxan jartzea.
- HAPN berria egitea
- Trenbideko lurak berreskuratzea, babes publikoko etxebizitzaren eraikina eraikitzeari lehentasuna emanez, zerbitzu orokorretarako espazioa mantenduz eta pertsona guztientzako parke handi bat mantenduz. Gainera, Bereizmen Handiko Zentroa lursail horietan kokatzeko aukera aztertu eta erraztuko da, eta trenbide zaharraren trazadura bide berde bihurtzea bultzatuko da.
- Bidegorrien sarea burutzea, aparkaleku estaliak ezarriz, eta espazio publikoak oinezkoentzat jartzeko eta errazteko bidean aurrera egitea.
- Garraio publiko iraunkorra bultzatzea minibus elektriko baten ezarpena aztertuz, egungo garraio publikoa hobetuz.
- Udaleko argiteria publikoaren sistema hobetzea.
- Auzoak zaintzea, auzo-elkarteekin premia nagusiak eta lehentasunak adostuz.

2.5. Udal irekia eta gobernu gardena

Gure asmoa herritarrak udal-ekintzaren erdigunean kokatzea da, herritarren parte-hartze zuzena sustatuz, gizarteak eskatzen duen gardentasun eta parte-hartze handienari erantzuteko.

Horretaz gain, bi alderdiek uste dugu beharrezkoa dela udal-gobernuak bere egunerokoan ahalik eta eskakizun gehien aplikatzea gardentasunaren arloan.

Horrela, ekintza hauek garatuko dira:

- Agintaldiaren lehenengo 100 egunetan idatziko den Gobernu Programaren aurkezpena eta argitalpena, baita ondorengo ebaluazioena ere.
- Proiektu estrategikoetan herritarren benetako parte-hartzea bultzatzea

2.6. Proiektu estrategikoak

Bi alderdiek uste dute legegintzaldi honetan proiektu estrategiko hauei ekin behar zaiela:

- Gaitasun Handiko Osasun Zentroa
- Trenbideko PERIa
- Eguzkitzaren garapena
- Durangaldeko Ekogarapen Gunea
- Merkatu plaza
- Adineko pertsonentzako zentroa

3. UDAL GOBERNUAREN BARNE ANTOLAKETA

Udal-gobernuaren oinarrizko printzipioak adostu ondoren, ezinbestekoa da barne-antolaketari ekitea, akordioaren eduki programatikoa gauzatzea ahalbidetuko duen tresna gisa.

Durangoko Udala 3 arlo handitan antolatuko da, honela banatuta:

Presidentzia	Batzordea	Barne hartzen dituen gaiak
HERRITARRAK	Jesica Ruiz (PSE)	PSE: Gizarte ekintza, adinekoak, berdintasuna, gazteria, immigrazioa, enplegua, jaiak, bizikidetza. EAJ: Kirola, kultura, hezkuntza, euskara eta parte-hartzea
LURRALDEA	Sara Oceja (EAJ-PNV)	EAJ: Hirigintza, auzoak, mugikortasuna, sustapen ekonomikoa, 2030eko agenda, hondakinen bilketa eta kudeaketa. PSE: Ingurumena, energia, etxebizitza, merkataritza eta turismoa
ANTOLAKETA	Josune Escota (EAJ-PNV)	Ogasuna, Barne Araubidea, Segurtasuna, digitalizazioa, komunikazioa eta gardentasuna.

2023-2027 legegintzaldirako Udalaren antolaketa 2023ko uztailaren 4ko Osoko Bilkuran onartuko da, eta une horretan aurkeztuko dira xehetasunak.

Durangon, 2023ko ekainaren 27an.

Jesica Ruiz Perez
PSE-EE

Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia
EAJ-PNV